

Villonen lan bat eta Caldersen beste bat euskarara ekarri dituzte


‘Testamentua’ itzuli du Matias Mujikak, eta ‘Hemen du atsedeen Nevaresek’, berriz, Antton Olanok • Literatura Unibertsala bildumako 168. eta 169. liburuak eman dituzte argitara

Ainhoa Sarasola Donostia

Beste bi izenburu batu zaizkio Literatura Unibertsala bildumaren zerrendari: François Villon poeta frantsesaren *Testamentua* obra euskarara itzuli du Matias Mujikakar, eta Pere Calders idazle katalanaren *Hemen du atseden Ne-vareski* ipuin antologia, berriz, Antton Olanok. Elkarren artean oso ezberdinak diren bi lan, bial euskaraz irakurtzeko moduan argitaratu dituzte Erein eta Igela argitaletxeek elkarlanean. Bildumako 168. liburua da Villonena, eta 169.a berriz, Caldersena.

Frantziako literaturako klasiko handienetakoa bat da Villon. 1431. urtean jaio zen, Parisen, eta ez da jakina noiz hil zen –1463. urtertik aurrera ez da haren aztarnarik aurkitu—. Jakina dena da bizitz gorahehatsua izan zuela, bere obretan horren lekukotasunak utzi baitzituen. Apaiz bat hiltzea egotzita, Paristik alde egin behar izan zuen, baina barkamena jaso zuen. Halere, kartzelan izan zen, lapurretatik preso hartu baitzituzten gero, eta hurbil izan zuen urkamendia ere. Heriotza zigorraren ordeh, hamar urtez Paristik kanpo bizitzera kondenatu zuten azkenean, eta orduan galdutako haren aztarna. Horiei gutzietan buruz hitz egiten du bere lanetan. «Frantziako garai hartako literatura, segur aski, mugarri bat izan zen, hain zuzen ere, bera ez zela-ko trobadoeretakoa bat. Batxilerraren, arteetan lizentziatua, maisu titulua bazuen... baina oso bizi-modu korapilatsua izan zuen, eta esaten da Frantziako poeta lirikoetan handienetakoa dela, haren poesia aski narratiboa izan arren bere bizitzaiz eta bere bizipenez hitz egiten zutenetarikoa zela-ko», azaldu du Xabier Olarra Ige-lararekin elkarrekin aurduradunak.

Villonon obra hiru maila ahalpadi inguruk osatzen dute. Bi poema luze dira haren lanik garrantzitsuenak: *Legatus* (1456) eta *Testamentua* (1461). «Baina hortxe dago emana haren maila guztia», Olarraren esanetan. Haren obra aspalditik zegoen itzulia izateko lanen zerrendan, baina beharbada «oso zaila eta antzinatua



Francois Villonen lan bat eta Pere Caldersen beste bat euskaraz irakurtzeko moduan daude dagoeneko.

koa» delako, inork ez zion orain arte euskaratzeari heldu. Mujikak heldu zion azkenean, duela biz-pahiru urte, eta lanari idatzitako hitzaurre «mamitsuan» azaldu ditu itzulpengintzan topatutako arazoak eta hartutako erabakiak.


Hasteko, gaurko frantses hiz-
tun batentzat ulertezina ez, baina
«muga-mugakoa» izan daiteke
idazkera, eta, horregatik, bi mu-
dura argitaratzen da egun libu-
rue: edo jatorrizkoa alde batean
eta aldamenen prosazko egoki-
tza pen bat laguntzat, edo edizio
ohardunetan. Bigarrenaren alde
egin du itultzaileak, behar-
rezko iruditzi zaizkion oharrak
bakarrik jasota. Villonen bertsoen
neurrietan topatu zuten beste bu-
ruhauste bat Mujikak, haiek eus-
kara ekartzen. Ahapaldien
neurria eta erritmoa mantentze-
ko ahaiegina egin du, baina ez ja-
torrizkoak berak, baizik eta zor-
tizko txikia hartuta oinarritzat.
Errimetan, berriz, libertate han-
diagoa hartu du, «fidelotasuna le-
henetsi» betiere.

Letra katalanen ikur

Villonaren oso bestelako bizitza izan zuen Pere Calders idazleak, baina gorabeheraz betea harena ere. Bartzelonan jaio zen.

1912an, eta eskolatik agertu zuen idazteko eta marrazteko joera—14 urterekin idatzitako lan batekin hasten da haren lehen ipuin bilduma—. Arte Ederrak ikasi, eta publizista batekin hasi zen lanean, baita hainbat egunkaritan idazten ere. 1936an argitaratu zituen lehen bi lanak: *El primer arlequin* ipuin liburua eta *La gloria del doctor Larén* nobela. «Bietan ja antzematen ziren haren ibilbide guztian ezaugarri nagusi izango zirenak: umorea eta ironia», Inazio Mujika Erein argitaletxeko arduradunaren hitzetan. Gerra iritsita, PSUCen boluntario aritu zen lanean; 1937an, armada errepublikanoan eman zuen izena, eta, bi urte geroago, Frantziara ihes egin behar izan zuen; konzentrazio esparru batean bizirik iraun ostean, Mexikora ihes egin zuen, eta han bizi izan zen, 1962. urtean Katalunja irizitu zen arte.

Mexikoko erbestealdiak eragin nabarmena izan zuen haren lanetan; dena argitaratu ez arren, han idatzi zuen Caldersek bere obra-
ren muina. «Esaten zuen han ez zela inoiz oso integratua sentitu, beti Katalunia zuela buruan; bere xedea zen katalanari eustea, katalanez idaztea eta han ziren idazle katalanak biltzea. Hala ere, haren



ipuinak irakurrita, esango nuke oso ikuspegi berezia eman zuela hango paisaiatz eta, batez ere, paisanajeaz, Mexikoko jendeaz», dio Mujikak. «Caldersek esaten zuen idazteko orduan ez ziola Mexikok eragin, herriminak eragin ziola. Nik zaltzantzar jarriko nuke hori, haren ipuinak irakurritaz».

Antton Olanok itzulitako *Hemen du atsedeen Nevaresek* hamahiru ipuinek osatutako bilduma da, 1955-1978 urteen artean idatziak. Lehenak ematen dio izena liburuari; luzea da, nobela laburtzat ere hartu izan da, eta, liburuko beste bat bezala, Mexikoko kokatu zuen idazleak. Besteak la-

burrangoak dira, garai eta giro ezberdinetan kokatuak, baina guztietan sumatzen da umorea, ironia eta sarkasmoa tarteka, eta, Mujikaren hitzetan, «absurdoa ere bai zenbaitetan, errealitatea dena eta ez dena nahasteraino».

Kataluniara itzulita, berehala ekin zion berriro idazteari eta idatzitakoak argitaratzeari; ipuinak batez ere, nobelak ere bai, eta antzezlanak geroago. Azken urteetan iritsi zitzaizkion aitortzak, Leira Katalanen Ohorezko Saria

Esaten da Frantziako poeta lirikoetan handienetakoa dela [Villon], bere bizipenez hitz egiten zuelako»

Xabier Olarra
Igela argitaletxeko arduraduna

«Caldersek esaten zuen idaztean Mexikok ez, herriminak eragin ziola. Haren ipuinak irakurrita, zalantzan jarriko nuke»

Inazio Mujika
Erein argitaletxeko arduraduna

(1986) tartean. 1994. urtean hil zen Calders. Mujika: «Zoritxarrez, ez da hain ezaguna Kataluniatik kanpo. Seguru asko, espainolez, ingelesez edo alemanez idatzi izan balu, askoz ere aintzat hartuagoa izango zen. Baina berak katalanez idatzi zuen: hautu natural horri eutsi zion hil arte».

1990ean abiatu zen Literatura Unibertsala bilduma, ezazioarte-ko literaturako ale ezagunetako euskarara ekartzeko helburuarekin, eta, 26 urteotan, 169 liburu eskaini dizkio euskal irakurleari. ELIZE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretetan Elkarteak kudeatzen du egitasmoa, eta Eusko Jaurilaritzak diruz laguntzen. Hain zuzen, Jaurilaritzaren izenean, bilduma sustatzen jarraitzeko konpromisoa agertu zuen Jokin Azkuek liburuaren aurkezpenean.



^{eus} **Jakin**218

herria kultura hizkuntza uztaila-urria
 2016

Kultura autodeterminatiko balitz

Kulturak(b) buruz-akatsiazue jokatzea egitea iragarri izan dadin, zuek behar da? Zortaitze eragileak izateak? Erakunde publikoekin harreman modu berriak lantzeko? Kulturaren eredu askotarikoak aintzat hartzeko?

IZAN
ZAITEZ
JAKINKIDE

Tolosa hiribidea, 103-1 C
 20018 DONOSTIA
 Tel. 943 21 80 92
 jakin@jakin.eus
 www.jakin.eus



BAI ETUTEA
 HAIZEA BERNILLA
 HEDOI ETXARTE

EIDER RODRIGUEZ
 MAIKA ETXEPAR

ANE RODRIGUEZ (TASU) / ALEA / ETEK KOFZE
 ZULAIKA / OIKI / AIZAP / GASTRO / IZATZ
 ZUKINEGI (Azeruko Kultur Minabai) / NEREA
 FILAT (Katalun) / PAULINE / GURETE / IZATE
 HEMA / T. / GURETE / GUSTO / MAIATO / BAI
 HEMA Beka Iratze / ANA / ADRIK / ETOXTEA /
 ZORRA / JEFFERY / JAI / URRESTA / AZNOL / JAI
 Sorrento / APOSTOLA

EGUMEN GURPILEAN
 MESEN ARTEKTE - HENRIKE GONZALEZ
 TXARRA RODRIGUEZ - GORKA LUCIA